

Mankomunitateko hondakin bilketako ibilgailuaren argazkia **sare-sozialetan - AZALPENA**

Azken egunotan, zenbait sare sozialetan Mankomunitatearen bilketa kamioi baten argazkia zabaltzen ari da. Argazki horretan, enpresen edukiontziak atez-ate biltzen dituen kamioia edukiontzi gris eta hori bana aldi berean husten ikusten da, eta argazkia zabaltzen ari direnek iradokitzen dute hondakin frakzio ezberdinak batera jaso direla kamioi berean.

Debagoieneko Mankomunitatetik argitu nahi dugu hondakin frakzioak ez direla nahastu, bi edukiontzi horiek errefusez beteta baitzeuden. Izan ere, **erabiltzaile batzuek lehendik zeuzkaten edukiontziak beste frakzio bat ateratzeko berrerabiltzen dituzte** (kasu honetan adibidez, beraien edukiontzi horia errefusa ateratzeko erabiltzen dute, zein frakziotarako erabiliko den era egokian adierazita, ondoko argazkian ikus daitekeen moduan).

Bestalde, argitu nahi dugu **mankomunitateko biltzaileek edukiontzi guztiek barruan zer daukaten begiratzten dutela edukiontzia hustu aurretik, eta dagokion frakzioa egoki bereizita ez badago edukiontzi hori ez dela husten.** Kasu horietan, gainera, intzidentziaren parte bidaltzen zaio erabiltzaileari, bere edukiontzia zergatik ez den hustu azalduaz.

Bukatzeko, herritarrei dei egiten diegu arduraz jokatzeko jarraitzera, Debagoienak hondakinen gaikako bilketan erreferente izaten jarrai dezan.

Arrasaten, 2018ko maiatzaren 21ean.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA



ERREFUSA
RECHAZO

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

